



210. zenbakia

·IRAILA 2021·

# pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

## ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

### PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

### EMAILA

pulunpe@gmail.com

### ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurzun.

### KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

### TIRADA

1.700 ale

### INPRIMATEGIA

Gertu

### MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

### AZALEKO ARGAZKIA

Orgiko bizilaguna. Julen Renedo.  
Argazki lehiaketako lehenengo saria.

### LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira ekainaren 30an bidalia



## Iraila (Berri Txarrak)

“

*Iraila izango zen  
Hitzak urtaro batetik bestera  
Bidaltzen genituen  
Izen gabeko txorien antzera  
Zerua ilun  
Soineko beltz  
Zu hain eder  
Nik zerotik hasi nahi nuen  
Iraila izango zen  
Munduaren nekea hostoetan  
Maite izan genituen  
Gauzek zentzua galdu zutenean  
Zerua ilun  
Soineko beltz  
Zu hain eder  
Hain eder  
Zerua ilun, zorua orbil, zu hain eder...  
Nola igarri orduan  
Iragan hau guztia  
Betiko izango genuela aurretik* ”



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra





Udako

# alergiak

## Udan alergiak eragin ditzakeen faktore asko daude, badira haiek sahisteko trikimailuak

Alergia bat immunitate-sistemaren erreakzioa da, gainerako pertsona gehienenei eragiten ez dien zerbaiten aurkakoa. Normalean, gure immunitate-sistemak germenari aurre egiten die. Gorputza defendatzeko sistema da. Hala ere, erreakzio alergiko gehienetan, sistema immuneak alarma faltsu bati erantzuten dio. Geneek eta ingurumenak rol garrantzitsua dute alergietan. Askotan alergiak dituztenak ahulak dira gauza baten baino gehiagoren aurrean.

Udan alergiak eragin ditzaketen faktore asko daude, ohikoena polena, eguzkiarekiko esposizioa eta intsektuen ziztadak izaten dira, baina askoz gehiago daude.

Uda garaian, polena lore txikietatik dator, hala nola belardietako gramineoetatik eta zereal gehienetatik. Honako sintomak izaten dira:

begi- eta sudur-kongestioa, malko-jario handia, begi- eta sudur-azkura, doministikuak, muki ugariak eta, kasu batzuetan, krisi asmatikoa.

Udako beste alergia arrunt batzuk urtikaria eta ekzema dira. Eragile nagusiak beroa eta eguzkiarekiko esposizioa dira; horiek prebenitzeko, larruazalarentzako babes egokia erabili behar da, eguzki-babeseke kremekin, eta eguzkitan denbora gutxi eman behar da, ordutegi egokietan: 11:00ak baino lehen eta 16:00ak ondoren.

Liztor eta erleen ziztadak ere ohikoak izaten dira, eta, hauek, intsektuekiko allergien eragile nagusiak dira; beraz, aire librean, horiek zaindu behar dira, haien ziztadak erreakzioa eragin baitezake.

Era berean, garai honetan elikadura-alergiak ohikoak dira; horregatik, etxetik kanpoko otorduak zaindu behar dira osagaiak ezagutzen ez ditugunean, batez ere elikagai-alergiak ditugula dakigunean.

Zaldiek, ardiek, ahuntzek, saguek, hamsterrek eta antzeko animaliek, besteak beste, rinokonjuntibitisa eta asma ere eragin ditzakete.

Bukatzeko, erreakzioa eragiten ahal diguten beste faktore batzuk dira kloroa duten igerilekuetan bainatzea eta kostaldean oso ohikoak diren etxebizitzetako akaroak.

### Udako alergiak sahisteko aholku batzuk

Inportantea da alergenorekiko kontaktua aurreikustea, batez ere udaberrian, hori baita polen gehien pilatzen den garaia. Horretarako trikimailu eraginkor batzuk daude:

- Gainean eraman beti espezialistaren txostena, non zure alegiaren xehetasunak azaltzen diren.
- Zure alergia kontrolatzeko hartzen dituzun sendagaiak eraman.
- Eguzki-babesa hartzea eta ez egon denbora gehiegi eguzkitara.
- Kloroarekiko sentikortasuna baldin baduzu, hobe da itsasoan bainatzea igerilekuan baino.
- Kanpoan jaten baduzu, otorduen osagaiei buruzko informazioa eskatu.
- Intsektuekin kontuz ibili.
- Ez hurbildu gehiegi normalean kontakturik ez duzun animaliangana.
- Maskara eta betaurrekoak erabili polena begietatik eta arnasketa-bideetatik ez sartzeko.

Litekeena da arnasketa sintomak alergikoak ez izatea, COVIDaren sintomak baizik; hortaz, duda izanez gero, beti osasun etxera jo kontsultatzeraz.





# VII. Pulunpeko argazki lehiaketa

## Pulunpeko argazki lehiaketak irabazle berriak ditu

Pulunpeko zazpigarren argazki lehiaketa izan da aurtengoa. Abuztuaren 25ean ezagutu genituen saridunen izenak: Gerendiango Julen Renedo Beunzak lehenengo eta bigarren sariak eskuratu ditu, eta Lizaskoko Gurutz Urzelai Iribarrenek hirugarrena. Aurten ere natura ikusi dugu irudietan, baina giza harremanak nabarmendu nahi izan dituzte saridunek.

### **Julen Domeka Renedo Beunza. 1. eta 2. saria**

Gerendiangoa da Julen Renedo, Atakondoa etxekoa. Burgosen Zientzia Politikoak ikasten ari da baina argazkilaritza oso gustukoa du. Ultzama ingurura eta baita kanpora doanean ere, kamara eramaten du gainean. Pasa den urtean bigarren saria irabazi zuen eta aurten lehenengo eta bigarrena "Orgiko Bizilaguna" eta "Covidak kendu ziguna" argazkiekin.

### **Aurrekoan bigarren saria irabazi ondoren, honetan lehenengo eta bigarrena! Espero zenuen?**

Sorpresa galanta izan da! Txantxangorriaren argazkiarekin sariren bat eskuratu nezakeela burutik pasa zitzaidan, baina biekin irabaztea sorpresa handia izan da. Ez nuen espero, eta oso pozik nago.

### **Dirua argazkilaritzarendako zerbait erosteko erabiliko duzu?**

Ba ez dakit, aurten kanpora noa, erasmus egitera, baina egia esanda argazkilaritzako gauzak, objetiboak, garestiak izaten dira, eta 500 euroak oso ongi etorriko zaizkit, bai.

### **"Orgiko bizilaguna" da lehenengo saria eskuratu duena, txantxangorri bat ikusten dugu bertan, gertu-gertutik, zaila izango zen ateratzea. Nola egin zenuen?**

Txantxangorri hura ondoan jarri zen modelo baten gisara. Ordu erdi ibili zen gure inguruan, guri jarraika. Txori bat kamararekin hartzea ez da erraza, asko mugitzen direlako, baina hainbat argazki atera ondoren ongi hartzea lortu nuen.

### **Asko gerturatu behar izan zinen?**

Ez, nahiko ona den objetibo bat dut, oso gertutik hartzen duena. Eta horrekin egin nuen.

### **Koloreak bizi-biziak dira, argazkiak editatzen ohi dituzu?**

Bai, normalean argazkiak atera ondoren zerbait editatzea gustatzen zait. Koloreak gehiago nabarmentzeko, adibidez, edo zerbait oker atera denean, kentzeko. Programa bat dut horretarako



Orgiko bizilaguna. Julen Renedo.  
Lehenengo saria

eta ez naiz profesionala baina gustatzen zait horrekin probak egitea eta orduak sartzen ditut.

### **Esan duzu txantxangorria gerturatu zitzazuela, kamara gainean eraman ohi duzu?**

Ultzamatik barna ibili ohi naiz kamararekin, Orgin adibidez. Orain, izurritearen ondorioz, zailagoa da, Orgin sartzeko erreserbatu behar baituzu, esate baterako, eta hori pena ematen dit. Bi argazkiak Orgin atera nituen. Baina bai, oinez nonbaitera noala kamara hartzen dut nirekin.

### **Izurritea aipatu duzu, eta, hain zuzen ere, bigarren saria eskuratu duenak horri buruz hitz egiten digu, "Covidak kendu ziguna". Baina izurritea baino lehen ateratakoa da.**



Covidak kendu ziguna. Julen Renedo.  
Bigarren saria.



▼ *Elkarzaintza. Gurutz eta Maider Urzelai. Hirugarren saria*

Bai, 2019an atera nuen. Nire ama da, nire ilobarekin. Amonak eta bilobak urte erdia eman dute elkar ikusi gabe, Italian bizi baita iloba. Biloba handitzen joan da eta ezin izan dugu ikusi.

**“Orgiko bizilaguna” kolore bizikoa da, eta, “Covidak kendu ziguna”, ordea, txuribeltzean, zergatik?**

Ez zen zerbait pentsatua izan, probak egin nituen eta, azkenean, horrela gustatu zitzaidan. Txantxangorriarena argi nuen txuribeltzean ez zela izanen, oso koloretsua baita. Bestea argiaren aldetik ilunagoa zen eta txuribeltzean hobe gelditzen zela ikusi nuen. Egia da, gerora pentsatuta, kontestuarengatik edo mezuarengatik ere ongi doakiola.

**Honetan, nabarmenagoa da esanahia, argazkiak asko esaten du.**

Bai, sentimentalagoa da. Argi nuen argazki hau aurkeztu nahi nuela, batez ere familiarengatik, omenaldi bat eskaini nahi nien. Haiek ere oso pozik dira sariarengatik. Dena den, gure familiari bakarrik ez, familia guztiei eskainia dago, guztiok gaizki pasatu baitugu egoera honetan.



▲ *Julen Renedo, Gerendiainen*

**Gurutz Urzelai Iribarren. 3. saria**

Lizason bizi da, Korosti etxean eta, alabarekin, Maider Urzelai Ancizurekin, atera ohi da inguruan paseoan, kamararekin. Bion saria delakoan eta aita oporretan harrapatu dugunez, alabak erantzun dizkigu galderak.

**Non atera zenuten argazkia?**

Aita eta biok joan ginen paseoan Larraintzarko bentetatik “Yeguada” aldera, bertan ardiak eta zaldiak izaten dira. Argi polita zegoela ikusi genuen eta argazkiak ateratzen hasi ginen. Halako batean argazki hori suertatu zitzaigun.

**Zer adierazi nahi zenuten? Izenburua nahiko adierazgarria baita, elkarzaintza, ardiak...**

Elkarzaintzaren izenburua jarri genion ardiak elkarrekin egoten direlako beti, artaldean, badirudi bata besteari zaintzen diotela. Argazkian batzuk belarra jaten ari dira, baina bi guri begira daude, adi-adi, eta, aipatu bezala, bata besteari zaintzen ari direla ematen du. Gainera, instintiboki ateratzen zaien hori oso adierazgarria da, eta guk ere hori bilatzen dugu, besteen laguntza eta zaintzea.



Bestetik, aniztasuna ere iradokitzen zigun. Izan ere, ardiak berdin berdinak ikusten ditugu, baina, aldi berean, ezberdinak dira: batzuk lasai-lasai jarraitzen dute, jaten, eta beste hauek alertan, eta, hori ere, polita iruditu zitzaigun.

**Konposizioa eta koloreen aldetik ere argazki berezia da. Ardiez gain, zerua ere txuria da, ardien buruak argazkiaren erdi erdian kokatzen dira, pentsatutako zerbait izan da?**

Egiari zor, ez zen oso pentsatua izan. Hasi ginen argazkiak ateratzen argi polita zegoelako eta ia-ia nahigabea hau suertatu zen. Koloreak oso lasaiak dira eta kontrastea egiten du hain adi dauden bi ardi horiekin.



▲ *Maider eta Gurutz Urzelai*



## Bide gorriak

Europako Txirrindularien Federazioak (ECF, ingelesezko siglekin) bultzatuta, azkeneko 40 urte hauetan, European bizikletaz ibiltzeko ibilbide aunitz egokitu dira. Gure kontinentea alderik alde zeharkatzen duten distantzia luzeko bideak dira, eta Eurovelo izena hartzen dute. Gaur egun, badira 16 luze, eta herrien artean bertze txiki batzuk ere prestatu dira. 2019ko bukaeran, baziren gutxi gorabehera 45.000 kilometro egokituta; hemendik epe motzera, denak amaituta izaten direnean, 90.000 kilometro izanen dira.

Eurovelo sarean sartzeko **baldintzak** honako hauek dira: %6tik gorako maldarik ez izatea; gutxienez bi bizikleta pasatzeko adinako zabalera izatea; batez beste, egunean 1.000 motordun ibilgailu baino gehiago ez izatea; gutxienez, luzeraren %80 **zolatuta** egotea; eta urte osoan irekita egotea. Hamasei bide horietatik, honako hauek azpimarratzen ahal dira: EV1, Atlantikoko ibilbidea (8.186 kilometrokoa eta Ipar lur muturretik Sagreseraino doana); EV2, Hiriburuen ibilbidea (5.000 kilometrokoa eta Irlanda, Erresuma Batua, Herbehereak, Alemania, Polonia, Bielorrusia eta Errusia lotzen dituen); **Erromesen ibilbidea** edo Donejakue bidea (5.122 kilometrokoa Norvegia,

Suedia, Danimarka, Alemania, Belgika, Frantzia eta Espainia zeharkatzen dituen); EV4, Erdialdeko Europako ibilbidea (4.000 kilometro dituen); eta EV8, Mediterraneoko ibilbidea (5.388 kilometrokoa, Cadiz, Venezia eta Atenas lotzen dituen).

Gurera hurbilduz, Atlantikoko ibilbidearen barrenean kokatu behar da Ederbidea **mugaz gaindiko sarea**, eta, horren barrenean, Bidasoko Bide Berdea. Ederbidea Baiona, Donostia eta Iruñea hiriak elkartuko dituen zikloturismo bide sarea da, eta 240 kilometroko luzera du. Tarte gehienak zabalik daude, eta gelditzen direnak agudo akituko dituzte.

Proiektua Europako diru-laguntzekin garatzen ari da, eta, bertan, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroako administrazio nagusiek eta hainbat elkartek parte hartzen dute. Baztan-Bidasoa bidearen erditik, Doneztebetik, adar bat dator gurera. Imotzen, gainera, **adar** horrek topo egiten du Baiona-Donostiatik abiatzen den adarrarekin, horrela, Plazaola trenbidearen ibilbidea zeharkatuko du. Hortik, Irurtzun eta gero Iruñeraino. Atlantikoko ibilbidearen zatitxo horrek Portugaleraino izanen du bere **jarraibidea** eta helmuga.



Eurovelo 1 - Ederbidea pasatzen da gure eskualdetik ▲



▲ Eurovelo mapa

### Hiztegia

**Baldintzak:** Requisitos

**Zolatuta:** Pavimentado

**Erromesen ibilbidea:** Camino de peregrinos

**Mugaz gaindiko sare:** Por encima de fronteras

**Adar:** Rama

**Jarraibidea:** Camino a seguir

aurten ere



**ikaSI!**

**Matriculikate**

Euskara ikastaroak / Cursos de euskera



euskara errazago egiten

## IMOTZ-BASABURUAKO EUSKALTEGIA

**Maila guztiak**

*Todos los niveles*

**EGA ikastaroa**

**Talde presentzialak /  
Autoikaskuntza**

*Grupos presenciales /  
Autoaprendizaje*

**DIRU-LAGUNTZAK  
BECAS**

**948610776 - 699704951**

[leitza@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:leitza@ikaeuskaltegiak.eus)

**MATRIKULA ZAITEZ!  
¡MATRIKULIKATE!**





## ***Diruz lagunduko dituzte izurriteak kaltetutako Ultzamako ostatu, jatetxe eta establezimendu turistikoak***

Oсотara 11.000 eurokoa da laguntza horretarako udal aurrekontu-partida, baina establezimendu bakoitzak 600 euro jasoko ditu gehienez.

Atzo argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean Ultzamako Udalak emango duen dirulaguntza. Bertan adierazten den bezala, helburua "COVID-19ak ostalaritzan, jatetxean eta turismoan eragindako krisi ekonomikoaren ondorio ekonomikoak arintzen laguntzea, baita horri aurre egiteko hartutako neurrien ondorioak ere".

Aldizkariak dioen bezala, "Neurri horien eragina bereziki negatiboa izan da ostalaritzaren, jatetxeen eta turismoaren sektoreko establezimenduetan. 2020ko martxoaz geroztik, itxi egin dira eta jarduera utzi behar izan dute hainbat denbora-tartetan, eta oraindik ere, urtebete baino gehiago igaro ondoren, funtzionamenduan muga asko dituzte, ordutegiei, zerbitzua emateko moduari, edukierari eta antzekoei dagokienez, eta horrek bereziki horrelako jardueretan eragin du".

Laguntza hau Ultzamako Ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) erroldan alta emanda dauden jarduera ekonomikoen titularrei zuzenduta dago, hala nola, taberna, jatetxe, kafetegi, ostatu, hotel, landetxe, museo, ikaskuntza-zentro, bisita gidatu eta turismo aktiboko jarduerak.

Emandako laguntzak 2021erako udal-aurrekontuko "Tokiko merkataritzarako laguntzak: ostalaritza eta turismoa" 4310 48000 aurrekontu-partidaren kontura finantzatu dira, 11.000,00 eurokoa. Diru hori laguntza jasoko dutenen artean banatuko da, onuradun bakoitzak 600 euro jaso ahalko baitu gehienez.

Baldintzen artean, laguntza jasotzeko, Ultzamako Udalaren Ekonomia-jardueren gaineko zergan inskribaturik egon behar da 2020ko martxoaren 14tik gaur arte. Gainera, 2020ko laugarren hiruhilekoko fakturazioa gutxienez %40 murriztu izana, 2019an hiruhileko horretan bertan fakturatutakoarekin alderatuta.

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izanen da, dagokion iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita (Atzo argitaratu zen, azaroaren 23an). Eta, eskabideak egoitza elektronikoen bidez ere aurkeztu ahal izanen dira (<https://ultzama.clmtec.es>) edo aurrez aurre udaletxeko bulegoetan (bulego-ordutegia 09:30etik 14:30era).

Informazio guztia:



Iraizozko ostataua ▲





## Izarpe kanpina, beteta

Lanez gainezka ibili dira uda honetan Izarpe kanpinuean. Uztailaren 10etik honera guztiz beteta egon da, eta astebururo lekurik gabe gelditu dira udaberritik honera. "Gauza gutxi izan dira hoberako izurritean, baina bat bai: jendeak hurbileko tokiak ezagutzeko aukera izan duela, eta guk kanpinuean nabaritu dugu. Nafarroako jende asko etorri zaigu". Esan digu Marta Gastonek, arduradunetako batek. Eta, gaineratzen duenez, badirudi aire librean egin daitezkeen jarduerak nahiago dituela jendeak, izurritearen ondorioz, eta horregatik ere, gero eta gehiagok kanpina aukeratzea du oporretan. Aldi berean, geroz eta furgoneta eta karabana gehiago ikusten dira, baieztatu digutenez.



Glampineko etxetxoak Izarpe kanpinuean ▲

Hau laugarren uda izan da Izarpe kanpina ireki zutenetik, eta esan daiteke egonkortu egin dela: "nabaritzen da jendeak ezagutzen gaituela honezkero, baditugu errepikatzen duten bezeroak. Hau lan gehien izan dugun uda da, eta nik uste hemendik aurrera horrela izanen dela". Horren seinale, egin dituzten hobekuntzak eta eginen dituztenak ikasturtean zehar: glampineko bi etxetxorekin hasi ziren, eta orain bost dituzte.

Nafarroako jendea hurbildu zaiela esan dugu, baina baita Euskal Herrikoak eta penintsula osotik, batez ere, katalanak. "Dena den, aurten ere, kanpotarren falta bota dugu. Nik uste dut izurritearen beldur garelako gure herrialdeetatik ateratzeko, eta hori sumatzen da. Hala ere, urtero etortzen diren belga batzuk ditugu".

Izurriteak, gainera, urtero egiten zituzten festak egiteko aukera ere kendu die. Hala ere, terraza aurretik zutenek, gainontzekoei baino pixkat gutxiago eragin die Covidak, ez baitute luze itxi behar izan. Baina behatzak gurutzatuta dituzte ea pandemia azkar pasatzen den: "Barbakoak, ihoteak, halloween festak, jai izugarriak antolatzen genituen hemen, kanpinueko bezeroei bakarrik ez, Atezko herritarrei zuzenduak. Ea laster horrelakoak berriz egiteko aukera dugun".



# TXAKUR JANARIA

CARLOS 660781595  
Pili 650206699





iritzia



**Ane Garcia Lopez**

Berria

## Ederragorik ez da zu baino

2021eko abuztuak 11

Uda betea, jaioleku dudan kostako herri turistikoko poteo kalea jendez lepo. Nire herria izanagatik, ez dut inortxo ere ezagutzen. Inor ere ez. Bertakoa ez den lagun batekin noa, berak dio kriston-giroa-dago eta nik diot honek-nazka-ematen-du. Eta ohartzen naiz bertakoek udan sarri errepikatzen dugun esaldia dela: herriak nazka ematen du. Naz-ka.

Turismoaren masifikazioari heltzen dioten eztabaiden ildo ekonomikoari jarraituz, herriko gazteok ere alokairuaren eta kañaren prezioa izan ohi dugu kexen ardatz. Era berean, gure taberna zuloko haserreari erantzunez, sarri entzun behar izan dugu herri polit batean bizitzeak hau dakarrela: ordain ekonomikoa. Ederra dena esplotatu daiteke eta kitto: ustiaketaren aurrean ez duzu erantzuterik. Pentsamendu patriarkal eta kapitalista hutsa da, ongi pentsatuz gero.

Baina nik nazkaz hasi dut zutabe hau eta nazkan jarri nahi dut arreta, turismo masiboaren ondorio emozionalak lehen lerroa ekartzen ez baditugu hankamotza delako analisia. Nire herriarekiko nazka sentitzeak ere badu ordaina: espazioak jatearekin batera, udaro turismoaren ondorioz herriarekiko apatia eta gaitzespena sentitzeak herrigintzarako grina kentzen didalako. Eta galera hori askoz zailagoa da ikusten eta berreskuratzen. Herria desartikulatu egiten da, eskaparate bihurtzen.

Jakin nahiko nuke zenbat aldiz izan naizen ni fenomeno honen konplize beste herri eta herrialde batzuetara joan naizenean. Zenbat aldiz areagotu dudan herritar batek bere herriarekiko sentitzen zuen nazka. Eta jakin nahiko nuke zergatik garen gai gure herrian gertatzen dena argi eta garbi ikusi arren, gainerakoei beren lekuak ebasten jarraitzeko, lasai asko.

## Mendialdeko Elikadura Mahaia sortu dute

Elikadura sistemarekin lotutako gaiak lantzeko, Mendialdeko Elikadura Mahaia sortu dute eskualde horretako hainbat eragilek. Cederna Garalur landa garapenerako elkarteak, eskualdeko udal ordezkariak, Habelarte Mendialdeko baserritarren elkarteak eta Leitzako Kontsumo Taldea daude, momentuz, talde eragilean.

Mahai sortu berritik jakinarazi dutenez, eskualde zabaleko merkatarik eta ostalariekin, Plazaola Partzuergoarekin eta bestelako eragileekin elkartzea da haien asmoa. Hilero ari dira biltzen, eta momentuz, bi bilera egin dituzte. Heldu diren hilabeteetan izanen dugu ekimenaren inguruko informazio gehiago.

## Hainbat makiren gorpuzkiak bilatzen ari dira Etxalekun

Abuztuaren 2an eta 3an aritu ziren Aranzadi zientzia elkarteak eta Nafarroako Memoria Insitutua, hainbat herritarren laguntzarekin, frankismoaren aurkako borrokalarien gorpuzkiak bilatzen, baina ez zituzten aurkitu.

Lauzpabost lagunengatik gorpuzkiak daude Etxalekuko inguruetan lurperaturik, hainbat lekukotzaren arabera, eta astelehenean eta asteartean saiatu ziren haiek aurkitzen, baina ez zuten lortu. Dena den, hau lehenengo pausoa besterik ez da izan, herritarrek esan digutenez, eta saiakera gehiago egingen dituzte aurrerago.

Nahiz eta gorpuk ez aurkitu, Goldarazko Mikel Legarrak esan digu oso pozik atera zela egindako lanarengatik, herritar asko hurbildu baitzen laguntzera.

Hain zuzen ere, bi gorpuzki atera zituzten Goldaratzten pasa zen urteko uztailaren bukaeran. Han ere gehiago daudela uste dute, eta bilaketa gehiago egin nahi dituzte aurrerago. Horretarako lanean ari dira, eta ikasturte berriarekin informazio gehiago eman ahalko digute.



Goldaratzten pasa den urtean aurkitutako gorpuzkien irudia ▲





## Ainhoa eta Maria Iraizoz txapeldunak, trontzan

Arantzan jokatu zen Nafarroako trontza txapelketa, abuztuaren 14an, eta Eltsoko bi ahizpak izan ziren txapeldun. Bestalde, Nafarroako II. mailako aizkora kanporaketa ere izan zen, eta Xuban Kañamares aroztegiarra hirugarrena izan zen eta finalerako txartela lortu du.

Saso ezin hobean da Ainhoa Iraizoz eltsosarra. Nafarroako lokotx bilketa txapelketan txapela eskuratu zuen abuztuaren 8an, lehenengo aldiz, eta, orain, bere ahizpa Maria Iraizozekin batera, garaile izan da Nafarroako trontza txapelketan. Ainhoa Iraizoz, gainera, Euskadiko txapelduna ere izan zen aurretik.

Larunbatean lehiatu ziren, Arantzan, beste bost bikoteren aurka, eta bigarreni minutu bat aterata txapeldun izan ziren 4'45"eko denbora eginez. "Egiari

zor, zailagoa izanen zela uste genuen, baina azkenean minutu bateko aldearekin irabazi genuen", aitortu digu Ainhoa Iraizozek.



Trontza txapeldunak Maria eta Ainhoa Iraizoz ▲



CAMPING - KANPINA

# IZARPE

ULTZAMAÑO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

### ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



eta... Ostegunero  
sak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua  
Asteburuko Menu berezia  
Pizzak, Hanburgesak  
Plater konbinatuak  
Paellak....  
eta askoz gehiago





## ***Larraitzar eta Nafarroako eskupilota omendu du Antiguako Pilota Txapelketak***

Abuztuaren 10ean abiatu zen Donostiako Antiguako Pilota Txapelketa. Eta, Nafarroako eskupilota eta Larraitzarko frontoia eta pilota omentzeko, bertatik eman zioten hasiera txapelketari.



▲ Antiguako txapelketa Larraitzarren

Txapelketaren 73. edizioa da, eta Larraitzarko frontoia 100 urte bete dituzenez, eta Julian Lajosek duela 50 urte eskuratu zuenez bere eskuz banakako lehenengo txapela, Retegi I.a irabazita, Larraitzarren abiatu dute txapelketa aurten. Gainera, bide batez, Antiguako Pilotazaleak elkarteak Nafarroako eskupilota omendu nahi izan du horrela, lehiaketan urteetan parte hartu izan duten pilotari nafartar guztiengatik.

Horrela, Toki Alaien izandako bi partiden artean, Antiguako Pilotazaleak elkarteak Larraitzarko herriari eta Nafarroako Pilota Federazioari opari bat eskaini zion. Aldi berean, Larraitzarko herriak auzokidea duen Andoni Gaskue pilotari gazteari txapela bat oparitu zion; eta, Julian Lajoseren familiak beste txapela bat ere jaso zuen Nafarroako Kirol Institututik. Bukatzeko, Antiguako Pilotazaleak elkarteak berak oparia jaso zuen Larraitzarko herriarengandik.

Jardunaldian bi partida izan ziren, biak oso lehiatuak. Lehenengoan, De la Fuente eta Iztuetak osatutako bikoteak irabazi zuen, 22 eta 18, Unai Alberdi eta Morgaetxebarriaren aurka. Bigarren partidan, elite mailakoan, Mata eta Aizpuru gailendu ziren Murua eta Aldaberen kontra, 22 eta 21.

## ***Irailean itzuliko da Berriogoitira Nabarrekoren pikillo piperren kanpainia, nobedadeekin***

Irailaren 13ko astean hasiko du piperren kanpaina NABARREKOK. Aurten ere Berriogoitin izanen dira, besteak beste, pikillo piperrak erretzen eta saltzen. Baina, nobedaderik ere izanen da, izan ere, modu tradizionalen kirtena kentzeko aukera izanen baitu bezeroak, beharreko tresnak, sareak, eskuragarri izanen dituela.

Bat baino gehiago irrikitan egonen da kanpainaren zain- eta gure eskualdean badira bezeroak-, pasa den urtean, bakterio baten erruz produkzio eskasekoa, pena handiz, saltokia itxi behar izan baitzuten.

NABARREKOK harreman zuzena du nekazariekin: Lodosan, Sartagudan, Caparroson eta Berbinzanan ekoizten dutenekin, besteak beste. Modu konbentzionalen eta ekologikoan ekoiztutako piperrak saltzen dituzte, baita guztiz garbia ere.

Bereizgarrienak, beharbada, haien labeetan prestatutakoak dira, erre kutsua baitute. Baina badituzte ere, poteetan sartzekoak (piper beteak egiteko aproposagoak), esate baterako.



▲ Piperrak erretzeko prest



# Ikasi euskara, bidelagun onenarekin

Aprende euskera,  
con la mejor  
compañía

**aeK**

euskara praktikoa



Ixiar Erantsun Urtziola eta Kike Palma  
Huele AEK-ko irakaslea eta ikaslea

## Utzamako AEK

**Maila guztiak** · Todos los niveles

**Guraso taldea 5/6 ordu astean**

**EGA azterketa prestatzeko ikastaroa**

**SAKONTZEN** (arauak berrikusi, ohiko akatsak zuzendu...)

**Taldea edo autoikaskuntza** · Grupo o autoaprendizaje

**Mintzakide egitasmoa** (Mintzapraktika egiteko taldeak)



**Izena eman irailaren 27a baino lehen**

**Matricularse antes del 27 de septiembre**

**Informazioa eta izena ematea** · Información y matriculación

**948 60 47 04 edo 607 622102**

**larraun@aeK.eus**

**Utzamako AEK euskaltegia · Larraintzar**

### DIRULAGUNTZAK / BECAS

**Iparraldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak**  
**Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak**





## 20 urte irrati-uhinak astintzen

Duela urte pare batetik da Arrosa Sareko kide Esan Erran irratia. Ordutik, askotan entzuten dira FM-ko 107.9an Euskal Herri osoko euskalki desberdinak, askotariko gaiak jorratzen dituzten irratsaioetan. Tira, baina zer da zehazki Arrosa Sarea? Bada, Euskal Herriko irrati euskaldunen elkarlan proiektua da 2001. urtean Arrosan (Nafarroa Beherea) sortu zena. 20. urteurren ospakizunetan dabil sarea, beraz, eta aitzakia hori aprobetxatu dugu proiektuari buruzko erreportajea idazteko.

2000. urtean Joxemi Zumalabe fundazioak herri mugimenduaren topaketak antolatu zituen Barrian, Araban. Irrati libre desberdinetako kideak elkartu ziren bertan, eta zenbait hausnarketa planteatzen hasi ziren. “80. hamarkadatik zetozen eta sortzen ari ziren irratiak egon bazeuden, baina ikusten zen oso atomizatuta zeudela, bakoitza bere herrian zentratuta, eta ez zegoela haien arteko elkarlanik”, azaldu du Iraitz Gesalaga sareko koordinatzaileak Hala Bedi irratian. Komunikabide txikiak eta baliabide gutxikoak izaki, babesik gabe eta ezjakintasun handiarekin aurkitzen ziren askotan, horregatik erabaki zuten hutsune hori bete beharra zegoela.

Arabako lehen hartu-eman haren ondotik hainbat lan taldek martxan eta hausnarrean jarraitu zuten, eta hurrengo urtean, 2001ean, Arrosan (Nafarroa Beherea) egin zen Euskal Herria Zuzenean jaialdian sarea sortzea erabaki zuten. Herriari hartu zion izena irratiaren sareak.

“

**60 irratsaio elkarbanatzen dituzte sareko irratiak astero**

”

### Zazpi herrialdeetako 25 irrati, sarean batuta

Gesalagak elkarrizketan azaltzen duenez, ez zen erraza izan hasiera batean filosofia edo balore komunak jartzea. Izan ere, izaera eta mota askotako irratiak batu ziren sarera: irrati libreak, udal-irratiak, irrati komunitarioak, nazionalak, publikoak... Azkenean, baina, zoru komun bat ezartzea adostu zuten: euskara. “Irrati mota desberdinak izanda ere, euskara da guztiek komunean duten elementu bat. Hortik abiatuz, elkarlaguntza eta elkarrenganako errespetua dira beste oinarriak”, dio.

Elkarlan eta elkarlaguntza horretan, aipatzekoa da gaur egun sarea osatzen duten 25 irratiak astero –batzuk bi astean behin– 60 irratsaio elkarbanatzen dituztela. “Ekoizpen propio txikia duen irrati batek, parrila musikarekin bakarra bete beharrean, beste herri bateko irratsaioak har ditzake”, azaltzen du koordinatzaileak. Gaien aldetik aniztasun eta aukera handia dagoen bezalaxe, oso aberatsa da Euskal Herriko txoko desberdinetako euskalkiak norbere irratiaren entzuteko aukera ere izatea. Orain ulertuko dute batzuek zergatik entzuten dituzten Esan Erranen Bergarako, Xiberoako edo Markinako euskalkiak.

Irratsaioak partekatzeaz gain, jakintzen eta ezagutzen partekatzea bultzatzea ere bada

sarearen helburua. “Sarea sortu zenean, duela 20 urte, teknologia berriak eta interneta ez zeuden horren zabalduak. Gasteizko Hala Bedi irratia hasi zen lehen pausoak ematen: streaming-ak, interneteko zerbitzariak... Irrati txikiak ez zekiten nola egiten zen, eta horregatik, ezinbestekoa izan da jakintza elkarbanatzea”. Hasieran ez ezik, gaur egun ere etengabe ari dira aldaketak ematen irrati gintzan, eta horietara egokitzeko eta irratiaren arteko ezagutzak partekatzeko helburuz Arrosa Sareko topaketak egiten dira urtero. Podcast-ak nola egin, kontu teknikoak, hizkera ez sexista nola erabili irratiaren... irratiari lotutako tailer ugari egin dira topaketa horietan urtero.







## 20. urteurrena: topaketak eta dokumentala

20 urte bete ditu ekainean Arrosa Sareak, eta Euskal Herria Zuzenean festibaletik, sarea sortu zen jaialditik bertatik zuzeneko irratsaio bat eginez agurtu zuen ikasturtea. Zebrabidea izeneko irratsaio propioa du Arrosa Sareak, astelehenetik ostiralera 16:00etatik 18:00etara sareko irrati gehienetan zuzenean emititzen dena –Esan Erranen ere bai–. Emisio berezi horrez gain, urteurrena ospatzeko bestelako ekimenak ere eginen dira, esaterako, udazkenean egingo diren topaketak eta 20

“ Arrosa Sarearen ibilbidea jasotzen dokumentala aterako da udazkenean ”

urteotako ibilbidea jasotzen duen dokumentala ere prestatzen ari dira.

Promozio pixka bat egite aldera, gainera, autoan jartzeko ambientadoreak atera dira Arrosa Saretik, irrati guztien sintonizazio zenbakiak jasotzen dituen. Gure eskualdean, Jauntsarasko Apeztegi berrin eta Latasako Biltegian eskura ditzakezue ambientadore horiek –Usain on-ona dute, gainera!–.

Arrosasarea.eus webgunean aurki daiteke sareari buruzko informazio guztia eta bertan daude irrati guztien saioak entzungai, baita Zebrabideko edukiak ere. laz, sareko kide diren irratia zuzenean edo horien podcastak entzuteko aplikazioa sortu zuten, Android eta Apple sistemetarako egokitua. Edonon gaudela ere, mugikorretik bertatik sintonizatu dezakegu sareko edozein irrati.

Urte askotarako, Arrosa Sarea, eta beste hainbeste bete ditzala!

### Irrati kideak, herrialdeka:

**ARABA:** Aiaraldea eta Hala Bedi (Gasteiz)

**NAFARROA BEHERA:** Irulegiko Irratia

**BIZKAIA:** 97 Irratia eta Bilbo Hiria (Bilbo), Biztu Irratixe (Busturialdea), Eup! (Markina-Xemein), Radixu (Ondarru), Laixiar (Iurreta)

**GIPUZKOA:** Arraio (Zarautz), Ataria irratia (Tolosaldea), Ataun irratia, Kkinzona (Urretxu-Zumarraga), Kontrako Eztarrix (Azkoiti), Oiartzun irratia, Txapa (Bergara), Zintzilik (Oretea)

**LAPURDI:** Antxeta (Behe Bidasoa), Radiokultura, Gure Irratia

**NAFARROA:** Eguzki irratia (Iruñerria), Esan Erran, Xorroxin (Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Malerreka), Irati Irratia (Aezkoa, Erroibar, Orreaga, Luzaide eta Agoitz)

**EUSKAL HERRIA:** Naiz Irratia



▲ Arrosa topaketak 2019an, Urretxuko KKinzonan









# Zorionak Zorionak !



Zorionak Ekhiñe!



Zorionak Hegoi!  
NACIDO PARA CONDUCIR  
UN TRACTOR



Zorionak Virginia eta Bahartxo!



Zorionak Nere!



Zorionak Amilur!



Zoriondu zure laguna  
Pulunpen!  
[pulunpe@gmail.com](mailto:pulunpe@gmail.com)





## Alexandre Pedrós saria jaso du Igoako ikertzaile gazteak

Ekonomia Publikoko XXVIII. Topaketetan 40 urtetik beherako ikertzaileei zuzendutako Alexandre Pedrós saria eman zion Societat Econòmica Barcelonesa d'Amics del País-ek Ander Iraizotzi. Horrela jakin dugu berari buruz, Parisen doktoretza egiten ari baita 28 urteko Igoako herritar hau. Igoan igaro ditu asteburuak hiru urte zituenetik, han erosi baitzuten etxea gurasoek, baina aita Olagueko Gesalzea etxekoa du. Hiru urte daramatza Parisen, baina urte gogor honen ondoren Euskal Herrira itzuli da uda honetan. Igoan bildu gara berarekin.

### Aspaldi Igoara etorri gabe?

Paristik etortzen naizen orotan aprobetxatzen dut Igoara etortzeko. Urte gogorra izan da, eta uda hau ongi pasatzeko eta hemen inguruan gehiago egoteko hartu dut.

### Zergatik aukeratu zenuen ekonomia?

Politika publikoa eta jendearengan duen eragina interesatzen zaidalako. Ekonomian eta baita ekonomiaren etekinen banaketan duen eragina. Lehenengo Iruñean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, ADE (enpresen zuzendaritza) egin nuen eta, Erresuma Batuan, ekonomia master bat ikasi nuen.

### Ikasketak bukatu eta berehala doktoretzan sartu zinen?

Tartean bi urte eman nituen Eskozian lanean, Eskoziako Komisio Fiskalean. Bertan aurreikuspen ekonomikoak egiten genituen, Gobernuak jakin zezan zenbat diru jasoko zuen eta zenbat gastatu zezakeen. Esperientzia lortu nahi nuen doktoretza egin baino lehen. Hortik Parisa joan nintzen. Neskalaguna ere Parisen ari da doktoretza egiten. Finantziarioa lortzea zaila izaten da, baina dena ongi atera zitzaigun, plaza lortzea eta baita dirua ere.

### Nola da Parisen bizitzea?

Leku interesgarria da, hiri handia, ez da ez Igoa ezta Iruñea ere, noski! (barreak). Aukera asko ematen ditu lagunak ezagutzeko, mundu guztiko jendea baitago. Bizimodua estresagarriagoa da, mugikortasunaren aldetik bereziki, baina esango nuke hiri handi bat izateko paristarrei lasaitasuna eta kalean egotea gustatzen zaiela.

### Aipatu didazu pilotan aritzen zinela txikitari eta han ere lortu duzu, ezta?

Hori da, Parisen trinkete bat eta bizpahiru frontoi daude. Badago pertsona bat hori dinamizatzeko eta, gainera, eskuz jokatzen duen jenderik ez dagoenez harrera ona egin zidaten, jendea behar zutelako. Horregatik, oso gustura, astero joaten gara eta giro ona dago.





### **Eta kanpoko jendearekin edo euskaldunekin jolasten duzu?**

Ipar Euskal Herriko jende franko aritzen da, baina baita Frantziako beste tokietatik etorritako jendea eta paristarrak ere. Paueko edo Bordeleko jendea badago, adibidez, baina haiek erremintarekin aritzen dira gehiago. Eskuz, gehienbat, ipar euskaldunekin.

### **Are zailagoa al da doktoretza izurritearen erdian? Edo kontrakoa, despiste gutxi?**

Lagundu ez du egin, ez. Ikerketan eta denean interakzioak asko laguntzen du, eta hori ez da posible izan bakoitzak bere etxean egin duelako lan. Baina beste lanbide batzuekin alderatuta errazagoa izan da, azkenean, guk ordenagailua besterik ez dugu behar, eta lanean jarraitzeko aukera izan dugu, nahiz eta ezin izan diogun nahi bezain beste etekinik atera.

### **Autonomoen kotizazioa eta haien pentsioetan duen eragina ikertzen duzu, zergatik?**

Nire doktoretza hiru lanek osatzen dute, eta hori da gaietako bat. Estatu Espainiarrean autonomoek duten sistema interesgarria da beste herrialde batzuetan ez bezala, beraiek aukeratu dezaketelako zenbat kotizatu gizarte segurantzari, gero horrek pentsioan izango duen eragina jakinda. Orduan, kasu

interesgarria iruditu zitzaidan ekarpenak egiteko.

### **Kotizazioa autonomo tasatik aparte ordaindu behar dute?**

Ez. Kotizazio minimoari deitzen zaio autonomoen tasa. Orain 300 euro inguru dira hilabetean. Hortik aurrera nahi dutena igo dezakete. Nik ikertzen dudana hori da, kotizazioa igo ohi duten edo ez. Eta hau da ikusi dudana: errentagarritasun txikia dagoenean, hau da, 50 urtetik behera dituztenen artean, %3k kotizatzen du minimoa baino gehiago; eta, errentagarritasuna igotzen denean, 50 urtetik gora dituztenean, %10-15 batek igotzen du. Kopuru hori oraindik txikia da, kontuan izanda kalkulatu dudana errentagarritasun maila handia dela. Kotizazioa ez igotzearen eragina zein da? Autonomoek pentsio txikiak izaten dituztela, jubilatzen direnean pentsio minimoa jaso ohi baitute.

### **Zergatik gertatzen da hori?**

Ikertzen dudana garaian (1994-2002) kontribuzioa igotzearen errentagarritasuna handia zen. Baina, hala ere, jende gutxi igo zuen kontribuzioa. Nire ondorioa da errentagarritasunak pentsio formula nahiko konplexu batek ematen duela, jendearentzako zaila dena ulertzen eta kalkulatu.

### **Beste herrialde batzuetan ez dago aukera kotizazioa igotzeko?**



Parisko Fronton Place Libre. Iturria, frontons.net

“ **Lanaren inguruan jaso ditudan komentarioan onak izan dira, baina saria ez duzu espero** ”

Ez. Beste herrialde batzuetan, edozein langile bezala, errenta aitortpenaren arabera kotizatzen dute, irabazien portzentaje bat, alegia.

### **Dena den, osotara, hiru ikerketa egin behar dituzu tesirako, honetaz gain, zer beste gai landu dituzu edo landuko dituzu?**

Programa bat aztertzen ari gara, Frantzian 2007an ezarri zena. Programa horren bidez herritarrei kotizatutakoa bidaltzen zitzaie, eta simulazio bat egiten zitzaie, jakin zezaten zer pentsio jasoko zuten urte ezberdinetan jubilatuz gero. Pentsioei buruzko informazioa jasotzeko erretiroa hartzeko erabakietan zer eragin duen ikertzen dut.

### **Gai potoloa da pentsioarena, ezta?**

Bai, eta orain Frantzian are gehiago. Formatua aldatu baitzuten eta protesta ikaragarriak izan ziren (txaleko horienak).

### **Espero zenuen saria emango zizutela?**

Lanaren inguruan jaso ditudan komentarioak onak izan dira, baina hainbeste lanen artean eta lan bikainen artean ez duzu espero.

### **Tesia bukatu ondoren, badakizu zer egingo duzun?**

Urtebete edo bi urte geratzen zaizkit. Epe ertainean nik eta bikotekideak Euskal Herrira itzultzeko asmoa dugu.



# Etxe izenak

## eta gehiago

### Gaurkoan Berueten eginen dugu ostatu

Hizketan ikasi eta ia berehala hasi ginen herriko etxe izenak erabiltzen. Euskal Herriko kulturaren txertatua zegoen gauza zen hori. Berezkoa izaki, dirudienez.

Eta kokortzen hasi orduko nik hurbileko herrietako zenbait etxeren izenekin segitu nuen: Oskozko **Matxinia** edo **Perutzenia**. Ongi gogoan dut **Arotzaren** Mieli ikasiak: Muskizko **Artonia** eta **Itsasonia** eta Beuntzako **Zurgiñenia** eta **Bastallenia**. Eta orduan ohartu nintzen etxe izenak jakiteak zerbait berezi ematen zuela, jakinduria bat, dotoretasun bat. Hizkuntzarako zubitxo bat.

Geroago ohartu nintzen denoi gustatzen zaigula jendeak ezagutu gaitzan; edo gustatu izan zaigula noren seme-alaba garen galdetzea edo zein etxetako garen aipatzea. Azken hau gehiago.

Oraindik gazte, Basaburuan lanean hasi nintzenean ere, lehen gauza egin nuena Beruetera joan eta etxe guzieren izenak ikastea izan zen. Ez dut gogoan Beruetera nor zen etxe guzieren izenak erakutsi zizkidana, baina hori bai, udako atsalde batez zela bai eta egun beroa zela ere bai.

Etxe izenez-eta, zerbait idazteko gogoz nengoan aspaldian, arin-arin, jendea aspertu gabe, eta gaurkoan buruan darabilzkitan zenbait ideia botako ditut. Eta hasteko, Beruetera herria nuen aspaldian gogoan, alde batetik etxe asko eta bestetik berezitasun tiki batzuk dituen.

| ETXE IZENAK 1726. URTEKO ERROLDAN | AHOZ ESATEN DITUGUN BEZALA (1) 1935 | JABEARI DEITU IZAN ZAION BEZALA |
|-----------------------------------|-------------------------------------|---------------------------------|
| Barrenechea                       | <b>Barrantxea</b>                   | Barrantxe                       |
| Ibarrenea (sic)                   | <b>Ibarnea</b>                      | Ibarne?                         |
| Barberena                         | <b>Barbonea</b>                     | Barbone?                        |
| Perusquenea (sic)                 | <b>Beruskenea</b>                   | Berusko/Beesko                  |
| Osacar                            | <b>Otsakar</b>                      | Otsakar?                        |
| Guerezeta                         | <b>Gerezieta/Gerezeta</b>           | Gerezeta?                       |
| Peruchena                         | <b>Beetxonea/Behetxonea</b>         | Beetxo                          |
| Miqueo                            | <b>Mittonea</b>                     | Mitto                           |
| Yribarregarraicoa                 | <b>Garaikoa</b>                     | Garaiko                         |
| Yribarrenazpicoa                  | <b>Iribarnea/Irarna</b>             | Iribarne/Irarne                 |
| Itturriaga                        | <b>Itturriaga</b>                   | Itturri? Itturriaga?            |
| Ez dator                          | <b>Errekaldea</b>                   | Errekalde                       |
| Erriza                            | <b>Erretzea</b>                     | Erretze                         |
| Arregui                           | <b>Arregia</b>                      | Arregi                          |
| Petrichonea (sic)                 | <b>Petrinxonea</b>                  | Petrinxo                        |
| Ansorena                          | <b>Antsonea</b>                     | Antsone?                        |
| Ez dator                          | <b>Diagonea</b>                     | Diagone?                        |
| Sagastigaraicoa                   | <b>Sagastia</b>                     | Sagasti                         |
| Sagastiazpicoa (X)                | <b>ZEIN DA? Diegonea?</b>           |                                 |
| Ez dator                          | <b>Atxoanea</b>                     | Atxoane                         |
| Okola (sic) mayor (X)             | <b>Okela</b>                        | Okela                           |
| Michetorena                       | <b>Mitxetenea</b>                   | Mitxeto                         |
| Gaztondoa                         | <b>Gaztondoa</b>                    | Gaztondo                        |
| Cagerena (X)                      | <b>Txasenea</b>                     | Txase (sic)                     |
| Echeberria                        | <b>Etxeberria</b>                   | Etxeberri                       |
| Juanzarrena                       | <b>Juanzarrea (Txokolatero)</b>     | Juanzar (txokolatero)           |
| Iriarte                           | <b>Iriarte</b>                      | Iriarte                         |
| Ez dator                          | <b>Errandonea</b>                   | Erranddo                        |
| Ernandogena (X)                   | <b>Errandoxenea</b>                 | Errandoxene?                    |
| Apeztegia                         | <b>Apeztegia</b>                    | Apeztegi                        |
| Churinea (sic) (X)                | <b>Itxonea</b>                      | Itxo                            |
| Aldareguia                        | <b>Aldaregia</b>                    | Aldaregi                        |
| Echebarrena                       | <b>Txibarnea</b>                    | Txibarne?                       |
| Goicoechea                        | <b>Goikoetsea (sic)</b>             | Goikoetse?                      |
| Arozena                           | <b>Arotzenea</b>                    | Arotzene                        |
| Ydiaga                            | <b>Idiaga</b>                       | Idiaga?                         |
| Elizalde                          | <b>Elizaldea</b>                    | Elizalde/ixalde                 |
| Charborena                        | <b>Txarbonea</b>                    | Txarbo                          |
| Miqueletorena                     | <b>Mikeltonea</b>                   | Mikeltto                        |





1726. urteko Erroldan beste etxe bakar batzuk ere ageri dira eta honako hauek dira: **Ocola Chiquia**, **Casa Abacial**, **Molino harinero** eta **Ermita**. **Okola txikian** maistar bat bizi da, **Apezetxean** herriko apezka, **Errotan** herriko errotaria eta **Ermita** barnean egokitutako txoko batean, Polonia deitzen den emakume bat.

Eta Okola txikiakoaz at, badira beste 12 maistar, baina horiek **auzo** diren edo **bezindadea** duten etxeetan bizi dira nagusiarekin batera edo.

Herri guzian ez da beste eraikin edo edifiziorik. Bordak egiten-eta, geroago hasi ziren. Borda kontua berria da, 300 urte baino berriagoak dira denak.

1726ko Errolda, lehen zutabeen datorrena da. Horko etxe izenez, garbitasun batzuk: **Barren-** hitzak zer esan nahi ote du? Horrek **beheitiko** esan nahi du eta hortaz **Barrenetxea**, herriko beheenekoa delakoz. Gotiko auzoan hor dugu **Etxebarrena** edo **Txibarnea**. Etxea beheaxeago bide zen eta Goikoetsea gorago izatean, etxeari izen hori eman.

Hor baditugu bi bikote; **Yribarrena garraicoa / Yribarrenazpikoa** eta **Sagastigarraicoa/Sagastiazpikoa**. Garaikoa edo Goitikoa gauza beretsuak dira.

Beste kontu batzuk ere badira hor, baina gaur ez dugu tokirik denak aipatzeko.



**Txurdan**

(1) Zutabe hau 1935koa izanzen litzateke. Izenak: ahoz horrelatsu esaten dugu, baina egia esateko -ea bukaera hori toki gehienetan **BarrantxIA, Ibarria, ErrekaldIA** egiten dugu. Dena dela, Berueten, honela egiten dute: **BarrantxEE, IbarriaEE, ErrakaldEE...**

### BESTE XEHETASUN BATZUK:

**Perutxena** Beetxonea bihurtu zaigu Berueten eta **Peruskenea** Beruskenea. P B bihurtzea beste askotan ere gertatzen den gauza da: pesta/besta; pasta/basta; pago/bago...

Perutxeneak baditugu gure alderdiko beste herri batzuetan ere, esate baterako, Eltson, Oskotzen, Eritzen eta Eltson. Eta denetan, nik uste, nagusiari **Perutx** esan izan zaiola. Ikus, berriz, Berueten gertatu dena, **Beetxonea** eta **Beetxo**, alajaina!

Oso-oso polita eta bitxia dena: **Goikoetsea**, Berueteko euskaldun bikainei ikasi diet, bertako askok ere ez dakitena, **Goikoetxea** deitzen baitiote.

**Errandonea**, paper zaharretan **Ernardorena** agertzen da, baita Muskitzen eta Itsason ere. Eta beste zenbait tokitan ere bai. Eta guzietan orain **Errandonea** da.

### Hiztegia

**Berezitasuna:** peculiaridad

**Zutabea:** pilarea, columna

**Zeinu:** signo (!, ?..)

**Auzo:** Bezindadea zutenak edo auzo zirenak, etxe eta lurren jabeak izateaz gain, bazituzten deretxo batzuk. Beste aldi batean kontatu beharko honetaz zer bait.

### Oharra:

Okerren bat aipatu edo zer bait gehitu nahiko lukeenak aski du nitaz galdetzea.

### ETXE JABEEN IZENAK

Eta hirugarren zutabeen nagusien izenak jarri ditugu. Hor asko eta askori zeinu hau jarri diogu: **?** Horrek esan nahi dugu Berueten lekukorik ez dudala opatu hori garbituko didanik eta nik jarritakoa dudakoa dela. Kontua da etxejabe batzuei beren etxe izenez esan izan zaiela, baina beharbada ez kasu guzietan. Eta hori bai, auzo zen etxe batean maistarra edo bizi bazen etxe izenez ez zitzairen deitzen eta hori izan liteke izen batzuk galdu izanaren beste arrazoietako bat.

Etxe nagusiei deitzeko erabiltzen den izen horiek gehienetan horrela izaten dira:

Migelenea, Zapatiñenea, Arotzenea... etxe izenetatik Migelene, Zapatiñene, Arotzene...

Baina ez beti, askotan oinarrian dagoen izena ibiltzen baita: Jurdanea, Beltranea, Marijuanea, Martxonea... Jurdan, Beltran, Marijuan, Martxo.

Gero, badira beste batzuk, adibidez -txenea-z bukatzen direnak, honela jokutzen dute: Perutxenea, Ormitxea, Barrantxea... **Perutx**, **Ormitx**, **Barrantx** (Berueten, aldiz, **Barrantxe**)

Hala ere, Berueten baditugu nahiko bereziak, politik eta xarmagarriak diren izenak eta beste herrietan ikusi ez ditugunak: **Beetxo**, **Mitto**, **Txase**, **Itxo**, **Txarbo** bezalakoak; benetan dira politikak. Euskaldun hutsak zirenek asmatuak, hizkuntzaren sorgin kontuak balira bezala.

Gehiago ere zabaldu beharreko kontuak dira hauek, baina gaurkoz hemen utziko dugu.



# Alberto Urdaniz

## 30 urtez Odietaiko alkate

Ez dira Nafarroan 30 urtez alkate lanetan iraun izan duten kasu asko egonen; Bada, gutxi horietako bat da Odietaiko Alberto Urdanizena. Pasa zen ekainean 30 urte bete zituen Odietaiko alkate gisa. Ongi baino hobeki ezagutzen du udalerriko martxa, eta baita azken urteotan egon diren aldaketak ere. Urteurren bereziaren aitzakia hartuta elkartu gara berarekin.

### Odietar petoa da Odietaiko alkatea, ezta?

Bai, bai. Gaskuen jaioa naiz eta hemen bizi izan naiz beti. Ama Latasakoa nuen, eta aita, berriz, Gaskuekoa. Nire aitona-amonak Esteribar ingurutik etorri ziren hona, Gaskueko jauregi zahar bat erosi eta etxea egin zuten bertan. Lotura oso estua dut eskualdearekin eta ongi dakit nondik gatozen.

### 30 urte daramatzazu alkate, Nafarroako errekorren artean egonen zara!

Ekainean egin nituen 30 urte, bai. Tira, egia esan ez nau arduratzen errekorra izateak edo ez izateak; baina bai, oso gazte nintzela hasi nintzen. Nire aitak txikitatik erakutsi zidan komunitatearen alde lan egiten, auzolanetatik hasi eta Kontzejuko idazkari izateraino. 26 urte nituenean jarri ninduten hautagaitzako buru, eta geroztik hemen nago. Asko aldatu dira gauzak hasi nintzenetik, ordea...

### Zertan sumatu duzu aldaketa hori?

Ikaragarri aldatu da guztia! Hasteko, jendartea erabat aldatu da: oso indibidualistak eta egoistak bihurtu gara, eta onura komunari baino, norbere buruari gehiago begiratzen zaio egun. Zertan sumatzen den hori? Bada, administrazioari gauza asko eskatzen dizkiogu; baina, aldi berean, ematen diren zerbitzuak ez

dira baloratuak. Lehen herritarrek herriaren alde lan egiten zuten, edozein ekimen antolatuta parte hartzen zuten... Adibidez, garai batean oso ohikoa zen bizilagunek kaleak-eta garbitzea; orain, berriz, 'etorriko da administrazioa' pentsatzen da. Harrigarria da gaur egun, historian inoiz baino denbora libre gehiago eta baliabide gehiago ditugunean, gizarteari inoiz baino ekarpen txikiagoa egitea. Badago beste ikuspegi bat duen jendea, bere ekarpena egiten duena, eta eskerrak, baina ez da gehiengo. Inboluzio handi bat egon da zentzu horretan.

### Lan karga dezente ekarriko du alkate izateak...

Bai, denbora asko eskaintzen diot nik, baina gustatzen zaidalako ere egiten dut. Azkenean, 370 pertsonarendako lan egiteak 800endako egitea bezala da. Etxean bazkaria prestatzea bezala da: eltzekia laurendako edo birendako egin, antzeko esfortzua eskatzen du. Bestalde, Kontzejuekin harreman

“Aitak txikitatik bultzatu ninduen komunitatearen alde lan egitea”

eta koordinazio oso ona dugu, eta hori eskertzen da, norabide beran egiten dugu arraun. Azken urteotan, Ultzanuetako Mankomunitateak ere lan dezente eskatzen du, baina tira, Udalean langile oso finak ditugu eta horrek laguntzen du.

### Aurrera begira zein asmo duzu? Udalean ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?

Tira, nire konpromisoa momentuz legealdi hau amaitzea da. Ondoren, ez dut esanen jarraituko dudala edo ez dudala jarraituko, ikusiko da. Egia da bizitza honetan denak duela bukaera bat eta ezer ez dela betiko; baina, esan bezala, 2023ko maiatza arteko epean daukat orain burua eta ikusiko dugu aurrerago zer gertatzen den.



Alberto Urdaniz Odietaiko udaletxean ▲



## Eskualdean mendiko bizikletaz egiteko ibilbideak prestatzen

Berueteko Manu Alvarez Galartza eta Jokin Mikeo eta Arrarasko Mikel Goñi dira Beruete MTB taldearen atzean gehienbat ibiltzen diren kideak. Mendiko bizikletarako pasioak elkartuta, Beruete inguruan hainbat ibilbide egokitu dituzte azken hilabeteotan mendiko bizikletaz egiteko. Irteerak antolatzen hasteko asmoa ere badute. Alvarez elkarrizketatu dugu

### Noiz sortu zenuten Beruete MTB taldea, eta nondik nora?

Ni duela hiruzpalau urte hasi nintzen mendiko bizikletarekin, eta ikusten nuen bazegoela beharra hemen mendiko ibilbideak bizikletarentzat egiteko. Inguruko bide zaharrak garbitzen hasi nintzen, sasiak garbitzen, eroritako arbolekin oztopoak eta saltotxoak egiten... Konfinamendu garaian beste bizpahiru lagunekin ingurua gehiago aztertzen hasi ginen, ibilbideak diseinatu eta Udalari baimenak eskatu genizkion. Hori bukatutakoan hasi ginen jendeari honen berri ematen.

### Zein ibilbide egin dituzue, eta nola eraman dituzue aurrera lanak?

Hasieran etxe ondoan egin nuen zirkuitu bat niretzat eta lagunentzat, baina gero Seanbe inguruan egin genuen beste bat. Hortik aurrera, beste bat ere prestatu dugu Seanbetik Arraratsa bidean, Iratxo izeneko ibilbidea. Horretarako auzolan pare bat deitu genuen, eta jendea animatu zen, herriko gazteak eta Leitzako, Iruñeko eta Zarauzko taldeetako jendea etorri ziren laguntzera. Jende franko hasi da ibilbide hauek egiten, eta uste dut aukera polita izan daitekeela eskualdea ezagutzera emateko eta mugimendua sortzeko. Beti ere errespetuz, noski...

### Zein zailtasun maila dute sortu dituzuen ibilbideek?

Hemengo mendiak zorrotzak dira, aldapa gogorak daudelako, baina gure ideia denetik pixka bat edukitzea da. Zailtasun berdekoak, hasiberrientzat, urdinak erdi mailakoak, gorriak zailxeagoak direnak, eta beltzak, adituentzat.

### Irteerak antolatzea da zuen asmoa?

Bai, uztailaren 10ean egin behar genuen lehendabiziko irteera, baina koronabirusaren egoera zela eta atzeratu egin behar izan genuen. Lehenago irteera gehiago ere egin ditugu Lekunberrikoekin eta Leitzakoekin, Ireber aldetik. Baina aurrera begira badugu irteera eta ibilaldi gehiago egiten hasteko asmoa.

### Zerk egiten du erakargarri kirol hau?

Alde batetik, ingurune naturalaz gozatzeko aukera ematen duela. Kirol irekia da eta naturako elementu oso ederrak ikusteko aukera ematen dizu, arbolak, ur-jauziak... eta, gero, jaisterakoan, estres guztiak askatzeko aukera ematen du. Haur txikiak bezala gozaten dugu! Beste gauza polit bat taldeen arteko harremana da: jende askok kontaktatu gaitu: Bilbokoek, Jakakoek, Errioxakoek, Zarauzkoek...

“ Naturaz gozatzeko eta jaitsieretan estres guztiak askatzeko aukera ematen du kirol honek ”



▲ Auzolanean ibilbideak prestatzen. Alvarez, seinalearen ezkerreko aldean

# 2021eko ekaina

## 2021eko ekainean gure alderdian izan diren jaiotzak eta heriotzak

### Sortzeak:

#### ANUE Leazkue

Irati Luis Perez, ekainaren 25ean sortua **Errekalde etxean**. Gurasoak: Patxi eta Oihana.



▲ Irati, Leazkue alaitzera etorria

#### BASABURUA Igoa

Alain Mariezkurrena Etaio, ekainaren 1ean jaioa. Gurasoak: Andoni eta Sarai.



▲ Alain, igoarra

“ Zorionak gurasoei ”

#### ULTZAMA Alkotz

Uxue Fraile Ziganda, ekainaren 28an sortua. Neskatoaren gurasoak: David eta Patricia.



▲ Uxue, familia handitzera

### Ezkontzak:

#### IMOTZ Oskotz

Daniel Iriarte Lasete eta Raquel Fernandez Cuevas, ekainaren 12an ezkondu ziren. Oskozko **Eskoletxean** bizi dira eta bertan segituko dute.

“ Mila zorion ezkonberriei ”



▲ Dani eta Raquel, ezkontza egunean

#### ULTZAMA Eltso

Maria Purificacion M. Gonzalo Elizalde, **Ostatuko** etxekoandre zaharra, ekainaren 21ean hil zen 86 urtetan.



▲ Purificación Gonzalo

### Heriotzak:

#### BASABURUA Igoa

Maria Magdalena Huarte Altsua, **Martiñeneko** etxekoandrea; ekainaren 12an hil zen, 88 urtetan.



▲ Magdalena

#### IMOTZ Etxaleku

Maria Purificacion Erbiti Lopetegui, alarguna, ekainaren 9an hil zen, 93 urtetan, **Arrosetxean** bizi zen.



▲ Purita

#### Olano

Jose Luis Ostiz Zarrantz, **Etxeberriko** nagusia; ekainaren 10ean hil zen 67 urtetan.



▲ Jose Luis

“ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna ”





# 2021eko uztaila

## 2021eko uztailean gure alderdian izan diren jaiotzak eta heriotzak

### Sortzeak:

Guk dakigula, uztailean sortzerik ez da izan.

### Ezkontzak:

Ustez behintzat, ezkontzarik ez dugu izan.

### Heriotzak:

#### ANUE Olague

David Eleta Larraiotz, **Zurgiñen etxeko** nagusia; uztailaren 15ean hil zen, 82 urtetan.



▲ David Eleta

#### IMOTZ Etxaleku

Joaquina Aranguren Juankorena, **Jualpitzeneko** etxekoandre zaharra; uztailaren 13 hil zen, 98 urtetan.



▲ Joaquina Aranguren

#### Etxaleku

Maria Ascension Astitz Urritza, **Txurdaneko** etxekoandre zaharra, uztailaren 30ean 100 urtetan hil zen.



▲ Maixentxon

#### ULTZAMA Iraizotz-Lozen

Maria Isabel Barberena Olague, uztailaren 12an hil zen 54 urtetan.



▲ Isabel Barberena

#### Larraitzar

Ignacio Larraiotz Arroki, **Arotzeneko** nagusia, uztailaren 12an hil zen, 84 urtetan.



▲ Ignacio Larraiotz

“  
Zuen maitasuna,  
gelditzen zaiguna  
”

# Eskutitza

## Antonio Iturralde Lasarte hil zaigu

Gaurkoan Antonio Iturralde Lasartez hitz ein nahi nuke. Joan zen ekainaren 2an joan zitziun, denbo frankoz eri eon ondoren. Arraasko **Mendizabalen** 1933n jaioa ta Luzin bordan azie. Santiago ta Ramonan semea ta Patricio, Joxe, Pakito, Jaime, Maritxu, Joakina ta Ferminatxon anaie. Luzin bordan bizitto zen Tetuana soldaduxkea joan artio. Afrikan bi urte ein zittun ta handek etorreta beste bizpiru urte kamionaken. Pakito be anaieken Valentzira gora ta bera . Hoeita zazpi urte zittulaik Arizonaa etorre zen artzai. Han zazpe bat urte artzai ta kanpero ta kontrata akato ondoren Kaliforne muiito zen. Behi jezten, gurpillek konpontzen ta **baatzaile** (1) aitto zen. Gizon habille, mañosoa ta bixte handikoa, etxe zarrak eosten, konpontzen, lurre eosten , etxe berrik eitten ta sal-eosten negozioan ibilli zen be denbora guzin. Euskaltzale amorratu, jolasa

matte zuna ta lagun arten ibiltzea ere bai. Ixtorik kontatzen zakina, atealdi trastek zittuna ta denetako eantzune asmatzen zuna. Nik ze irrik ein nittun gizon honeken! Urte askoz kasik eunero jolasten ginen telefonoz, bete baginun zerbatte berri elkarrei kontatzeko. Bateko etxetaz, besteko lanez edo ezautzen ginun norbattez. Beti ateatzen ginun jolasa. Ikearri ongi pasatzen nun haren Aizaazko kontuk aitzen, be Ameiketako kontuk, artzai denbokoak ta gerostekoak. Behin etxek ikusten giñaltzela, ala galdetu nion..... Antonio, hemen tximinitan burne sare hoik zetako paatzen ttiote? –

Hoik? arratorek ez sartzeko.

-Koño! han Biutan ta Aizaotzen ez zittioten holakoak paratzen....

-Bai! arratorek etziteken teillatue joan beharrek etxen sartzeko,

ataretek sartzen hittun!

Holako atealdik, franko, eunka, denak paper baten paratzeko lekuek ez!

Gizon on bat joan zaiu, gizon txuxena ta launtzeko beti prest. Haren etxeko atek bete iikik eoten zen eozinzentzat, ta euskaldune bazen ta gehio. Makina pesta, otordu ta jolas eiñe naiz harrekin, ta behiñe aspertzen ez! Holakoa zen go Antonio. Arraats ta lgoa ikearre matte zittun. Etxe guzitako kontuk bazazkin. Hemendek joan zaiu, bai beño ez zattuu atzendoko. Goian bego ta ekose artio Antonio!

 **Iñaki Rekondo**

**(1) Batzaile:** Lorezainei esaten omen diote Kaliforniako euskaldunek.



▲ Antonio Iturralde bere emaztearekin



▲ Antonio Iturralde bere emaztearekin



▲ Antonio Iturralde bere emaztearekin





## Agur plastikoa

Sarritan bide okerra hartzen dugu bizitzan. Orduan, gelditu, bide hori atzean utzi eta bide berria aukeratu behar dugu. Hala ere, maiz, ibilbide ezberdinetatik ailegatu gaitezke helmugara, "bide guztiek Erromara daramate" esan ohi da horrelakoetan.



▲ Plastikoen kontrako kanpaina kartelak

Aspaldi geratu zen agerian erabilera bakarrekoko plastikoen bide okerrera bidaltzen gintuztela eta, azkenean, legea ezarri behar izan da hauen erabilera debekatu eta ibilbide hori behin betiko ixteko. Itsasoa bihurtzen ari gara gizakion zabortegei eta hau kutsatzen dituzten hondakin guztien %43, erabilera bakarrekoko plastikozko 10 artikulutik dator, debekatutakoetatik, alegia.

Ohiturak aldatzea, ordea, kosta egiten zaigu eta, beraz, egunero egiten genuen ibilbidea itxi eta beste bat hartu behar dugula gogorarazteko abian jarri dute "Agur plastikoa: Ez da laster arte bat, inoiz arte bat baizik" komunikazio kanpaina Nafarroan.

Ibilbide berria bilatu behar da hemendik aurrera, plastikozko

erabilera bakarrekoko ontzirik, belarriak garbitzeko makiltxorik, lastotxorik, kafe kapsularik gabeko xenda. Oraingoan ere bide luze, malkartsu eta bihurtzeko jositakora abiatzen ikusi ditut hainbat eta hainbat. Hau da, paper, karto edo bestelako material konpostagarri baino gehiago erabilera bakarrekoko jositako ibilbidetik. Bizitza berreskuratu dezaketen material, baina bere ekoizpen zein berreskuratze prozesuan energia xahutzen dutenak.

Nik, xenda lau, motz eta ederrenetik joatera gonbidatzen zaituztet, bide guztian zehar lagunduko zaituzten bizi luzeko ontziteri, lastotxo, kafe makina,... lagun hartuta. Motxila prestatu eta nirekin bidea egitera animatuko zara?

 Lurra

## Eskualdeko dendak, pausu bat aurretik



### Apeztegiherri, Jauntsarats (Basaburua)

Uztail aurretik saltzen zituzten paperezko edalontziak, baita lastotxoak ere. Orain, edalontzi biodegradagarriak ere ekarri dituzte, azukre-kanaberazkoak. Baina Ernaizu kooperatibakoek ez dute uste hor dagoenik arazoaren muina, izan ere, gainontzeko produktu asko plastikozkoak dira, aldi baterakoak, zakarrontzi poltsak, esate baterako. Janari asko ere plastikoz inguratuta saltzen diete. Olaia Gaskue: "Gu txikiak ginenean kapazuarekin joaten ginen erosketak egitera, gerora sartu gintuzten plastiko hori guztia".



### Izarpe Kanpina, Aroztegi (Atetz)

Debekatu aurretik hasi ziren plastikozkoak ez zirenak saltzen. Horretarako ekoizle bereziak bilatu behar izan zituzten eta oraindik ere, batzuetan, zaila izaten da plastikozkoak direnak eskaintzen baitizkiete, oraindik biltegietan dituztelako. Marta Gaston: "Hori plastikozko edalontziekin gertatzen ari da, tabernan zerbitzatzeko edalontzietan, esate baterako. Guk biodegradagarria eskatzen diegu eta oraindik plastikozkoa sartzten digute. Baina gutxika-gutxika aldatzen goaz".



### Biltegia, Latasa (Imotz)

Latasako Biltegian, hasi zenetik, hartu zuen Baietz Kooperatibak edukiontzi biodegradagarriak besterik ez erabiltzeko eta saltzeko erabakia, eta, bezeroek badakite. Jasangarritasuna kooperatibaren baloreetan dagoela esaten digu Idoia Jusuek, eta horregatik hartu zuten hautu hori hasiera-hasieratik:

"Bakoitzak, lantegietan ere, ardura hori hartzen badu, gure ingurumena zaintzen dugu".



## Beste ikasturte bat liburutegian

Urtero bezala irailean hasiko dugu ikasturte berria liburutegian. Aurten, gainera, lehenengo aldiz pandemia hasi zenetik, ohiko funtzionamendua berreskuratuko dugu (edukiera, distantzia eta behar diren neurriak mantenduz, hori bai). Orain arte alde zuzeneko hitzorduarekin eskaini ditugu gure zerbitzuak, baina irailaren 6tik aurrera abisatu gabe etor daitezke liburuak hartzeko edo itzultzeko, irakurtzeko, ikasteko, irakurle taldeetan parte hartzeko...

Ordutegia betikoa izango da: astelehenetik ostiralera, 16:30etik - 19:30era bitartean.

## IRAKURLE TALDEAK

Irakurle klubak aipatu ditugu, eta gogoratu nahi dugu bi direla (gaztelaniaz eta euskaraz) eta edozein pertsonak parte hartzen ahal duela. Hilean behin elkartzen gara irakurri dugun liburu bat komentatzeko. Liburuak ez dira erosi behar, Nafarroako liburutegiko sareak uzten dizkigu, partaideen artean banatzen dira eta bileretan bueltatzen dira, eta banatzen dira hurrengo bileran irakurriko eta komentatuko ditugunak.

"Eta zer egiten da edo komentatzen da bilera horietan?", entzuten

dut galdetzen duela espontaneo batek. Bada, bakoitzak nahi duena eta nahi duen modutan. Lasai, ez da intelektuala izan behar parte hartzeko. "Eta zer irakurtzen duzue?", berriro tipo kurioso horrek. Hemen erantzuna zailagoa da, baina esan daitezke denetarik irakurtzen dugula (ipuinak, nobelak, komikiak...) eta era berean normalean inoiz irakurriko ez zenituzkeen liburuak. Hori da behintzat partaideek esaten dutena, zentzu onean: egileak, istorioak, estiloak... berriak direla haienentzat. Esanen dugu, bide batez, esperientzia aberasgarria dela

besteen ikuspuntutik ulertzea edo deskubritzea irakurri duzun liburuak. Liburu bat ezberdina da bakoitzarentzat eta beti ikasten da zerbait modu horretan.

Esan bezala, bi talde dira (gaztelaniaz eta euskaraz) eta bietan izena ematen ahal da liburutegiko e-mailean: [liburutegia@ultzama.es](mailto:liburutegia@ultzama.es). Bilerak arratsaldean dira (normalean 18:00etan asteazkenarekin). Anima zaitzete! (batez ere euskara taldean, oso jende gutxi gaude eta).

"Ados, horrela egingo dut!" entzuten diot gure lagunari.

## OSTIRAL KULTURALAK: KONTZERTUAK ETA LEGO TAILERRAK

Irailean ere ostiral kulturalen martxa berreskuratuko dugu hiru ekitaldirekin. Blues erritmoan bukatu genuen ekainean, eta blues erritmoan hasiko dugu ikasturtea: Iker Piris musikari tolosarraren eskutik.

### Iker Pirisen kontzertua

Jatorrizko blues akustikoaren zale amorratua da Piris, eta nazioarteko artista handiekin partekatu du oholta. Bere azken lana amets zahar bat da, blues akustikoko bakarkako diskoa: "Solo", non bertsio klasikoak eta abesti propioak nahasten dituen eta New Orleansera edo Misisipiko deltarra bidaiarazten gaituen. Kritikariren batek idatzi duen bezala: "Iker Piris talentuz gainezka dabil".

Irailaren 10ean 19:00etan Larraintzarko Gizarte Etxean izanen da Iker Pirisen kontzertua (edukiera mugatua izanen da, beraz, sarrera erreserbatzen ahal duzu -doakoa da- email honetan: [liburutegia@ultzama.es](mailto:liburutegia@ultzama.es))

Iker Piris -  
Take me back  
bideoklipa



Iker Piris





## Lego tailerrak: dinosauroak eta Harry Potter

Irailaren 17an umeendako txanda da. Ordu eta erdiko tailerrak antolatu ditugu Lego piezekin, 5 eta 12 urte bitartekoentzat. Bi tailer dira: bata, dinosauroekin;




▲ Harry Potterren lego tailerra izanen da irailaren 17an

haurrek irudimenean duten eszena jurasikoa sortu ahal izango dute, Legoren mota guztietako piezak, figura txikiak eta dinosauroak erabiliz; eta bestea, Harry Potterren ingurukoa: haurrek Howartsen unibertso fantastikoaren eszena bat birsortu ahal izango dute, Legoren mota guztietako piezak eta Harry Potterren gaiko pertsonaiak eta osagarriak erabiliz.

Aldez aurretik izena eman behar da: [liburutegia@ultzama.es](mailto:liburutegia@ultzama.es). Bi tailerretan parte hartzen ahal da, baina plazak betetzen badira, plazak ekitatiboki banatuko dira, izena eman den ordenaren arabera. Adierazi zein tailerretan parte hartu nahi den eta (bietan bada) lehentasun ordena.

Hona hemen ordutegia: dinosauroarena 16:00etatik 17:30era, eta Harry Potterrena 18:00etatik 19:30era.



▲ Dinosaurioen lego tailerra izanen da irailaren 17an

## Sin mala intención taldearen kontzertua

Beste kontzertu batekin bukatuko ditugu iraileko ekitaldiak. Sin mala intención pop-rock taldeak bere bigarren diskoa kaleratu berri du, "Cuando llueve demasiado". Gorka L.P. abeslari eta konpositorea buru duen talde gipuzkoarrak 11 abesti berri aurkeztuko ditu, gaztelaniazko rock estilotik edaten dutenak. Besteak beste, "Punto y seguido" eta "Fui un volcán" aurkezpen-singelez gain, euskarazko abesti bat, "Zu zara", eta Joaquín Sabina-ren "A la orilla de la chimenea" abestiaren bertsio bat.

Irailaren 24an izango da kontzertua 19:00etan Larraintzarko Gizarte Etxean. Honetan ere edukiera mugatua izanen da, beraz, doako sarrera erreserbatzeko idatzi email honetara: [liburutegia@ultzama.es](mailto:liburutegia@ultzama.es)

Sin mala intención  
- Vuela conmigo ▶  
bideoklipa



▲ Gorka LP, Sin mala intención

## Periko Zunzarrenen erakusketa

Horretaz guztiaz aparte, irailean tokiko argazkilari baten erakusketa izanen dugu: "Con amor y con humor". Egileak presarik gabe eta ingurua arretaz behatuz ibilaldi eta txangoetan jasotako irudiak hainbat serietan erakutsiko ditu.

Bukatzeko gogoratzen dizuegu zuen proposamenak jasotzeko hileroko lehengo asteartean Dinamizazio Batzordea elkartzen garela liburutegian 16:30ean eta parte hartzea irekia da. Informazio gehiago: [liburutegia@ultzama.es](mailto:liburutegia@ultzama.es) (eta irakurri baduzu testu osoa jadanik buruz jakingo duzu e-maila).

 **Patxi Irurzun**  
Ultzamako liburuzaina



# EGA

## tituluaz

### Gazteria, EGA, euskara, irakaskuntza

Gure alderdiko gazte baten artikulua bat ikusi genuen Berrian eta Zuzen.eus-en. Adur dugu gazte hori. Artikulu hori dela eta elkarrizketatu dugu. Hona elkarrizketa:

Adur ▼



**EGA tituluaz hasi hintzen gogoeta labor bat eginez. Bi hitzez, esan dezakek bertan azaldutakoa?**

EGArri buruzko lagun arteko eztabaida baten ondorioz suertatu zen artikulua. Nire ustez, EGA bera mugarri ttiki bat da gaur egun euskara maila neurtzeko eta era berean gaitasun bat frogatzeko instrumentu bat. Egunero lagunarte, komunikabide eta esparru ezberdinetan aditzen dira euskararen kontrako uste okerrak, eta horien artean EGArri buruzkoak. Triste da pentsatzea EGA edo parekidea izan litekeen euskara maila euskaldun gutxi dutela jakitea, eta era berean egoera horren aurrean harturiko jarrera kritikoa, maila jaitea edo izatea.

**Jakina, EGArri aparte, euskararen, bai ahozkoan eta bai idatzizkoan ez dela behar den maila erdiesten eskoletan eta irakaskuntza ere hizpidera ekarri duk.**

Oro har, D ereduko eskola eta institutuen aisialdiko esparruak erdaldunak dira, eta gero eta sarriago klasea bera ere bai.

Gero, aipatu beharra da irakaste askoren euskara maila eta berarekiko duten atxikimendua ere ez dela maiz aproposena.

**Euskalduna izatea euskaraz aritzea delarik, kontu hau ere ekarri duk hizpidera, eta galdera beldurgarri bat bota duk:**

**Noiz galdu zen identitatea eta hizkuntzaren arteko konexioa? Beraz, deskonexioa edo sumatu izan duk.**

Nire ustez, nabarmena da euskara eta berau biltzen duen oro bigarren edo hirugarren mailan kokatzen dela, urteak daramatza gure utopiatik aldentzen beste gai batzuk sartu ditugun heinean. Dagoeneko ez da gure identitatearen ardatz nagusia edo nagusienetako bat. Hartara aipatzen dut garrantzitsua dela norberaren jokatzeko modua eta egoera orokorraz kontzientzia hartzea.

**Nire azken galdera. Bukaeran edo aipatzen dituk 1960-1985eko tartean euskararen alde izandako zenbait borroka (gau-eskolak, ikastolak, euskarazko prentsa, euskararen ofizialtasunaren aldeko aldarria...)**

**Zerbait gehitu nahiko huke? Azken batean zer duk hire idatzia? Lanerako eta borrokarako deia?**

Irudipena dut, nire aurreko belaunaldiak askoz ere borrokalariagoak eta langileagoak zirela; agian, malenkonia apur bat sumatu daiteke hitz hauetan. Baina ekintzak ikusiz, bistakoa dela deritzot.

Nire artikulua, ikusi eta entzuten denaren isla bat besterik ez da. Gustatuko litzaidake konbite bat bezala hartuko balute gazteek, eta eskaini nahi duten apurra eguneroko jarreran eta ekintzetan islatzea.

**Adurren artikulua osoa irakurri nahi duenak jo beza lotura honetara:** [www.berria.eus/paperekoa/1961/025/001/2021-05-30/sustrairik-gabe-lorerik-ez.amp.html](http://www.berria.eus/paperekoa/1961/025/001/2021-05-30/sustrairik-gabe-lorerik-ez.amp.html)



MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK  
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

**KARRIKOLAR**  
ELEKTRIZITATEA



**629 31 53 32 · 722 766 835**

LIZASO · [karricolaregoitz@gmail.com](mailto:karricolaregoitz@gmail.com)

**GOTELET-A  
KENTZEA**

**FATXADAK  
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA  
(IMPERMEABILIZACIONES)**

**DAVID ELIZONDO PINTURAK**  
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA  
ETA  
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA  
KONPROMEZURIK GABE**

**678623866**

ZIAURRITZ · [argapin@hotmail.com](mailto:argapin@hotmail.com)



# 2000

arrosa  
urte

uhinok  
uzt(h)ortuz



Txara  
97.2

DOTZA

97.4

97.5

97.6

naiz:irratia

kinzona

97.7

97.8

97.9

97.10

97.11

Bure:irratia

97.12

EUP!

esan  
erran

97.13

BI-96.0-FM

97.14

97.15

97.16

97.17

97.18

Ataun  
irratia

97.19

alaraldea fm